AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5149

EBAZPENA, 2011ko urriaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Teknikari laguntzaileen kidegoan, Itsasontziko Makinen eta Instalazioen Ikuskapen eta Kontroleko Goi-mailako teknikaria aukeran, karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen duena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko 2008. urteko enplegu publiko eskaintzako hautaketa-prozesuetako oinarri orokorrak onartu ziren.

Aipatutako deialdiaren oinarriek, 8. atalean, ezartzen zuten eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik gehienez 20 egunera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak onartu behar zuela hautaketa prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Behin eskariak onartzeko epea amaiturik eta eskariak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko teknikari laguntzaileen kidegoko Itsasontziko Makinen eta Instalazioen Ikuskapen eta Kontroleko Goi-mailako teknikaria aukeran karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/ope helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda horren argitalpena agintzea (aipatutako helbide elektronikoan kontsultak egiteko, NANa eta eskabidearen erreferentzia-zenbakia sartu beharko dira):

a) Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Donostia kalea 1 (Lakua), 01010 PK.

b) Bilbao: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Recalde zumarkalea 18, 48009 PK.

c) Donostia: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.

d) Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Unibertsitate Zaharra, 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epea eman bazterturiko hautagaiei, baztertzeko arrazoia eta zuzentzeko gai diren akatsak zuzen ditzaten, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 21a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.